

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Desafektazio-espeditentaren hasiera (Espedientea: 2021/135/S566)**

Udal honen osoko bilkurak, 2021eko irailaren 27an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen, udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin, hasiera batean onestea ZV-37 Sektoreko (Lateorrondo) 1. egikaritze-unitatean kokatutako 15435 eta 15436 erregistro-finken jabari publikoaren desafektazioa, eta finka horiek ondare-ondasun gisa kalifikatzea.

Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, espedientea jendaurrean jarriko da iragarki hau argitaratu eta hilabeteko epean, interesdunek egoki iritzitako alegazioak edo oharrrak aurkez ditzaten.

Aurreko paragrafoan adierazitako epe-muga igarotakoan, espedientea Osoko Bilkurari igorriko zaio berriro, aurkez daitezkeen alegazioak ebazteko, eta, nolana ere, desafektazioaren behin betiko onespenerari buruzko erabakia hartzeko, eta, hala badagokio, eragindako ondasunak ondare-ondasun gisa formalki jasotzeko.

Laudio, 2021eko urriaren 5a

*Alkate-udalburua*

**ANDER AÑIBARRO MAESTRE**